

DOMUND 2021

**“CUENTA LO QUE HAS VISTO Y OÍDO”
“KONTATU IKUSI ETA ENTZUN DOZUNA”**

Adiskideok:

Misinoetarako Ordezkaritzatik datorren urriaren 24an, domekaz, ospatuko dan DOMUND 2021 kanpainaren barri emon gura deusuegu..

Apostoluen Eginetan oinarritutako goiburuak gutako baktxaren eta alkartearen lekukotasuna biztu gura dau: **“Kontatu ikusi eta entzun dozuna”**. Bihotzean daukaguna ezagutzera emonez, makina bat anai eta arrebaren egoeraz “arduratzeko” deia da.

On Joseba Segura gotzainak bere mezuan dinoanez: *“Kanpaina honek martxan jarri gura gaitu, gure buru eta bihotzak zabalduz. Kristoren misinoaren barruan gagoz eta misino horrek danon laguntza behar dau: “Zoaze, bada, bidekurutzeetara eta deitu ezteguetara guztiak aurkitu ahala” (Mt 22, 9). Inork ezin dau bere burua errukizko maitasuna sustatzeko deitik kanpo ikusi. Kristok gizon eta emakume eskuzabalak behar ditu gaur be, fede sendoa dabenak, Jainkoaren Maitasunari bide emoteko eta munduaren kanpoaldeetan agertzera emoteko gauza diranak”*

Egun honeetan, gure misioilarien bizitza eta lana gogora ekarri gura doguz, munduko hainbat lekutan, Jainkoaren maitasunaren barri ona iragarten eta mundu zuzen eta anaikoarragoaren eraikuntzan laguntzen dihardue-eta. Egunez egun, Barri Onaren aldeko konpromisoa barritu egiten dabe eta uste osoa jarten Jainkoaren maitasunean, arazo, erronka, aberastasun eta pobretasunei aurre egin ahal izateko.

Aurreko urteetan lez, kanpainarako lagungarriak bialtzen deusueguz, esate baterako: On Joseba Segura gotzainaren mezua, kartelak, triptikoak, e.a. Gainera, dalako lagungarri horreek www.omp.es Aita Santuaren ardurapeko Egintzak dalakoaren web orrialdean eskuratu daikezuez. Misiolari gazte bik euren lekukotasuna eskainiko dabe ikastetxe eta taldeetan.

DOMUND eguna ondo ospatu eta aprobeztatu gogoeta eta ekintzarako egun hau zuon talde eta alkarteetan misiolari bokazino barriak eragiteko.

“Jainkoak mundura, herriz herri, bildu gura gaitu gaur be, bere maitasunaren lekukotasuna emoteko, IKUSITAKOA ETA ENTZUNDAKOA KONTATZEKO”.

Eskerrik asko kanpaina garatzen lagundu eta, bide batez alkarteak gure anai eta arrebarik behartsuenen garrasia entzutera zabaltzen dozuezanoi.

Feli Martin

Misinoetarako ordezkaria

Oharra: dohaintzak ze parrokia, alkarte erlijioso, ikastetxerenak... diran ondo jakiteko, arren eskatzen deusuegu GAIAN honako hau ipinteko: **lehenengo herria** eta **ondoren parrokiaren, ikastetxearen... izena.**

DOMUND 2021

**“CUENTA LO QUE HAS VISTO Y OÍDO”
“IKUSITAKOA ETA ENTZUNDAKOA KONTA EZAZU”**

Estimadas amigas y amigos:

Desde la delegación de Misiones os queremos hacer partícipes de la campaña del DOMUND 2021 que se celebra el domingo 24 de octubre.

Este año el lema de la campaña está inspirado en los Hechos de los Apóstoles, quiere suscitar el testimonio personal y comunitario: **“Cuenta lo que has visto y oído”**. Una invitación a “hacernos cargo” de la situación de muchos hermanos y hermanas, dando a conocer aquello que tenemos en el corazón.

Como nos dice nuestro obispo D. Joseba en su carta: “Esta campaña quiere ponernos en movimiento, abriendo nuestras mentes y corazones. Somos parte de la misión de Cristo, una misión que necesita la colaboración de todos: “Salid al cruce de los caminos e invitad a todos los que encontréis” (Mt 22,9). Nadie puede sentirse al margen de esta llamada a promover el amor de compasión. Cristo sigue necesitando personas generosas y con fe recia, capaces de colaborar con el Amor de Dios y reflejarlo en las periferias del mundo”.

Queremos hacer presente en estos días la vida y la tarea de tantos misioneros y misioneras repartidos por el mundo, anunciando la buena noticia del amor de Dios y trabajando en la construcción de un mundo más justo y fraterno. Personas que cada día renuevan el compromiso con el Evangelio, Y que confían en el amor de Dios para afrontar problemas, retos, riquezas y pobreza.

Al igual que otros años os enviamos los materiales de la campaña como la carta del nuestro obispo M. Joseba Segura, además de carteles trípticos, etc.; también podéis disponer de otros materiales en la página web de Obras Misionales Pontificias: www.omp.es Contaremos con la colaboración de dos jóvenes misioneras que darán testimonio en centros educativos y grupos.

¡Feliz día del DOMUND!, que aprovechemos este día de reflexión y acción para suscitar en nuestros grupos y comunidades nuevas vocaciones misioneras.

“Dios continúa buscando a quien enviar al mundo y a cada pueblo, para testimoniar su amor”,
PARA CONTAR LO QUE HAN VISTO Y OÍDO”

¡Muchas gracias a todos los que colaboráis en esta campaña haciendo posible que nuestras comunidades estén abiertas a escuchar el clamor de nuestros hermanos y hermanas más pobres!

Feli Martín

Delegada de Misiones

Nota: Para poder identificar bien el donativo de cada parroquia, comunidad religiosa, colegio..., os rogamos encarecidamente que escribáis en ASUNTO **primero el municipio y a continuación el nombre de la parroquia, colegio,...**